# GORABIDE

Nº 272 Zk.
2018ko IRAILA
SEPTIEMBRE de 2018

DISCAPACIDAD INTELECTUAL - BIZKAIA - ADIMEN DESGAITASUNA


**INFORMACIÓN BBK SAIOA GORABIDE INFORMAZIOA**

**Patrimonio protegido**
**Ondare babestua**
pg. 4 or.



**735 plazas en verano**
**735 plaza udan**
pg. 6 or.



**Cierre de 'Mujeres y Discapacidad'**
**'Emakumeak eta Desgaitasuna'**
pg. 7 or.

# Pertsona Irisgarriak Guggenheim eta Itsas museoetan

*BBKrekin landutako proiektuaren prestakuntza faseari ekingo diogu*





# Personas Accesibles en los museos Guggenheim y Marítimo de Bilbao

*Iniciamos la fase formativa del proyecto que desarrollamos con BBK*



## Primera propuesta de familias para familias: Grupo de Acogida (pg. 5)

## Familietatik familientzako lehen proposamena: Harrera taldea (5. or.)


GORABIDE

ASOCIACIÓN VIZCAINA EN FAVOR DE LAS PERSONAS CON DISCAPACIDAD INTELECTUAL

c/ Licenciado Poza nº 14, 2ª - 48011 Bilbao | Teléfono: 94 443 12 10 | gorabide@gorabide.com

gorabide.com | facebook.com/Gorabide | twitter.com/gorabide

Colabora Laguntzen du

Bizkaia foru aldundia diputación foral

# Pertsona Irisgarrien saioak Guggenheim eta Itsas Museoetan

***Adimen desgaitasuna duten pertsonentzako jarrera eta interakzio onuragarriak sustatzeko proiektuaren prestakuntza faseari ekingo diogu BBKrekin elkarlanean***

**Guggenheim Museoan eta Bilboko Itsasadarra Itsas Museoan jendaurreko arretan lan egiten duten pertsonek Pertsona Irisgarriak izeneko programaren prestakuntza faseari ekin diote. BBKrekin batera garatzen ari gara proiektu hori, adimen-desgaitasuna duten pertsonen erabateko gizarteratzea lortzeko beharrezko jarrerak sustatzeko xedearekin.**

Gaikuntza aldi baten ostean, Gorabideko zortzi erabiltzaile prestakuntza saioak ematen hasi dira, jendaurreko arretan lan egiten duten pertsonengan jarrera inklusiboak sustatuko dituzten gaitasun kognitibo, afektibo eta jarrerazkoen inguruan. Lehenengo lau saioak Guggenheim Museoan eta Itsasadarra Itsas Museoan eman dira. Hasierako galdera: *"Nolakoak uste duzu direla pertsona irisgarriak?"*.

Modu interaktiboan eta jarduera praktikoen bidez, saio horietan hainbat gai landu dira; hala nola, pertsonekiko harremana, jendaurreko arretan irisgarria izatearen garrantzia edo adimen-desgaitasuna duten pertsonekiko tratuan sor daitezkeen zailtasunak. Gainera, ulertzeko zailak diren eremuen adibideak eta horien ondorioak aurkezten dituzte, baita pertsona hauei begiratzeko, hitz egiteko edota tratatzeko moduan agertzen diren jarrera kontziente eta inkontzienteak ere. Era berean, beste pertsonekin elkar ulertzeko zer behar duten azaltzen dute.

**Adituak esperientziagatik**

*"Adimen urritasuna dugunok esperientziagatik adituak gara",* ziurtatu dute, ekintza mota horiek balioan jartzeko orduan. Horietan, lehen pertsonan hitz egiten dute *"adimen desgaitasuna ez duenak kontatu ezin dituen gauzez"*, azpimarratu dute. Bestalde, adierazi dute programa honen gakoa hauxe dela: *"Gure bizikalitatea hobetzen duten aldaketen parte aktiboa izan nahi dugu". "Nirekin harremanetan jartzeko era ni ikusteko moduaren menpe dago, eta ez hainbeste nire izateko moduaren menpe"*, adierazi dute.

Saio bakoitza bukatzean, prestakuntzak adimen-desgaitasuna duten pertsonen inguruan profesional bakoitzak duen pertzepzioan eraginik izan duen aztertzen da. *"Oso esperientzia aberasgarria izan da; lehen aldia da trebatzaileen taldean adimen-desgaitasuna duten pertsonak daudela, eta horrek muga guztiak hausten ditu"*. Horretan bat etorri dira prestakuntza jaso duten pertsonek.

Pertsona Irisgarrien programaren gainerako saioak abendura arte emango dira Eusko Jaurlaritza, Bizkaiko Foru Aldundia, Bilboko Udala, Metro Bilbao, Kutxabank eta Euskaltelen instalazioetan.


Guggenheim Museoan saioa


Itsas Museoan saioa

IRAKURKETA ERRAZA

BBKrekin elkarlanean, Gorabideko erabiltzaile batzuek hitzaldiak eman dituzte Guggenheim Museoan eta Bilboko Itsasadarra Itsas Museoan. Jendeari arreta ematen dioten langileei azaldu diete zeintzuk diren adimen-desgaitasuna duten pertsonen beharrizanak. Abendura arte, hitzaldi gehiago egongo dira beste erakunde batzuetan.

# Sesiones de Personas Accesibles en el Guggenheim y el Marítimo

***Iniciamos la fase formativa del proyecto para fomentar actitudes e interacciones favorables a las personas con discapacidad intelectual en colaboración con BBK***



Sesión en el Museo Guggenheim


Sesión en el Museo Marítimo

**Profesionales de atención al público del Museo Guggenheim y del Museo Marítimo Ría de Bilbao han inaugurado la fase formativa del programa Personas Accesibles, que desarrollamos con BBK con el objetivo de contribuir a fomentar actitudes favorables a la plena inclusión de las personas con discapacidad intelectual.**

Tras un periodo de capacitación, un grupo de ocho personas usuarias de Gorabide han comenzado a ofrecer sesiones formativas sobre competencias cognitivas, afectivas y actitudinales que generen conductas inclusivas en personal de atención al público. Las cuatro primeras sesiones se han desarrollado en los museos Guggenheim y Marítimo de Bilbao, con una pregunta inicial: ¿Cómo crees que son las personas accesibles?

De una manera interactiva y con actividades prácticas, en estas sesiones se abordan cuestiones como la relación con las personas, la importancia de ser accesible en la atención al público o las dificultades que pueden generarse al tratar con personas con discapacidad intelectual. Además, se ofrecen ejemplos de entornos difíciles de comprender y sus efectos, así como de las actitudes conscientes e inconscientes que este colectivo se encuentra en cómo les ven, cómo les hablan, cómo les tratan… Y también explican qué necesitan ellas para entenderse con otras personas.

**Expertas por experiencia**

*"Las personas con discapacidad intelectual somos expertas por experiencia"*, aseguran a la hora de poner en valor este tipo de acciones, en las que hablan, en primera persona, *"de cosas que no puede contar nadie que no tenga discapacidad intelectual"*. Y destacan que la clave de este programa está en que *"queremos ser parte activa de los cambios que mejoran nuestra calidad de vida"*. Porque *"la manera de relacionarte conmigo depende de cómo me ves, y no tanto de cómo soy"*.

Al finalizar cada sesión, se chequea si la formación ha tenido efecto en la percepción que tiene cada profesional sobre este colectivo. *"Ha sido una experiencia muy enriquecedora, porque es la primera vez que en el equipo de formadores hay personas con discapacidad intelectual, y eso rompe barreras"*, coinciden las personas que reciben la formación.

El resto de sesiones del programa 'Personas Accesibles' se desarrollará hasta el mes de diciembre en instalaciones del Gobierno Vasco, la Diputación Foral de Bizkaia, el Ayuntamiento de Bilbao, Metro Bilbao, Kutxabank y Euskaltel.

LECTURA FÁCIL

En colaboración
con BBK,
personas usuarias
de Gorabide han dado
charlas en el Museo
Guggenheim y en el Museo
Marítimo de Bilbao.
Han explicado al personal
que atiende al público
qué necesitan las personas
con discapacidad intelectual.
Hasta diciembre, va a haber
charlas en otras entidades.

información bbk SAIOA GORABIDE informazioa

# Patrimonio protegido

### ¿Qué es?

Es un conjunto de bienes y derechos que se destina a satisfacer las necesidades vitales de una persona con discapacidad intelectual superior al 33%, o discapacidad física o sensorial superior al 65%.

### Requisitos

Que la persona tenga la discapacidad debidamente acreditada y que alguien quiera aportar bienes o derechos a su favor. La persona que aporta los bienes o derechos puede ser cualquiera, aunque no tenga parentesco con la persona con discapacidad, incluso la propia persona con discapacidad puede hacer aportaciones a su favor si tiene capacidad para hacerlo, o bien su representante legal. A un mismo patrimonio protegido, pueden hacer aportaciones diferentes personas y en diferentes momentos.

### Dónde se solicita

En cualquier notaría, mediante escritura pública.

### Cómo se solicita

En la escritura se hace un inventario de bienes o derechos aportados al patrimonio. Se designa a la persona que va a administrarlo y se establecen normas de administración (la persona que aporta tiene total libertad para determinar esto).

### Para qué

La constitución de un Patrimonio Protegido tiene importantes ventajas fiscales tanto para quien aporta como para la persona beneficiaria. Por ejemplo, las aportaciones de hasta 3.000 euros, realizadas por familiares de primer grado, pueden deducirse en el IRPF como si se tratase de aportaciones a planes de pensiones. Y si, como consecuencia de la aportación, hay ganancia patrimonial ésta estará exenta de tributación hasta cierta cantidad.

# Ondare babestua

### Zer da?

% 33tik gorako adimen-desgaitasuna edo desgaitasun fisikoa, edo % 65etik gorako desgaitasun sentsoriala duten pertsonen beharrizanak asetzera bideratuta dauden ondasun eta eskubideak dira.

### Baldintzak

Pertsona batek desgaitasun bat behar den moduan egiaztatuta edukitzea eta beste norbaitek bere alde ondasun edo eskubideak eman nahi izatea. Eskubide edo ondasunak ematen dituen pertsona edozein izan daiteke, desgaitasuna duen pertsonarekin ahaidetasunik izan ez arren. Desgaitasuna duen pertsonak berak egin ditzake ekarpenak bere alde, horretarako gaitasunik badauka, edo bere legezko ordezkariak. Ondare babestu berera hainbat pertsonak egin ditzakete ekarpenak, une desberdinetan.

### Non eskatu

Notario baten aurrean, eskritura publiko bidez.

### Nola eskatu

Eskrituran ondareari emandako ondasun edo eskubideen inbentario bat egiten da. Administratuko duen pertsona izendatzen da eta administrazio arau batzuk ezartzen dira (ekarpena egiten duen pertsonak askatasun osoa dauka hori zehazteko).

### Zertarako

Ondare Babestu bat eratzeak abantaila fiskal handiak ditu, bai ekarpena egiten duenarentzat, baita onuradunarentzat ere. Esaterako, lehen mailako senideek egindako 3.000 euro arteko ekarpenak PFEZ zergan kendu daitezke, pentsio-planetarako ekarpenak balira legez. Eta, ekarpenaren ondorioz, ondare-irabazia zergak ordaintzetik salbu egongo da, kopuru jakin batera arte.

**Servicio BBK SAIOA GORABIDE Zerbitzua**
**Tel. 94 453 90 86**

# Grupo de acogida para nuevas familias

***Primera propuesta "de familias para familias" del grupo de reflexión sobre participación***

La entrada a los grupos de familias puede ser un poco dura o difícil. Por eso, apostamos por facilitar que las nuevas incorporaciones se sientan más cómodas y en su casa. Desde esa premisa, se formula la propuesta 'de familias para familias' que lidera Isabel, madre de Haizea.


De izquierda a derecha: Yuliana, Maite, Mari Carmen, Isabel, Yolanda, Pedro, Ana y Lorea.

La esencia de esta iniciativa la describe Pedro, padre de Iván: *"Llegamos enfadados, con un montón de preguntas y dudas; se nos había caído el mundo. Y encontrar a un matrimonio más o menos de nuestra edad, que te dice 'Sabemos cómo te sientes porque lo hemos vivido'... te sientes comprendido, aliviado y es una ayuda".* Yolanda, madre de Gaizka, les acogió y asegura que no fue difícil: *"Diana* (responsable de Intervención Familiar) *también nos comprende, pero parece que creemos más a la gente que está en nuestra situación". "Es que lo que sentimos como familias, alguien profesional lo puede entender, pero no lo puede sentir"*, apostilla Ana, madre de Borja.

Isabel recuerda a los grupos *"como muy fríos con la persona que entraba nueva. Y vimos que era importante que nosotras aportáramos algo a Gorabide, no sólo pedir".* El resultado lo percibe Mari Carmen, madre de Jon: *"En mi acogida, parecía que habíamos hablado toda la vida. Me dio mucha confianza, me sentí integrada y acabamos hablando de todo".*

Maite, madre de Joar, se sintió importante con su acogida: *"Dije 'joer, aquí tienen alguien para mí sola' y vi que hablábamos el mismo idioma".* Iuliana, madre de Sergio, reconoce que le facilitó *"entrar en el grupo y estar cómoda".* Y Lorea, hermana de Igor, reconoce la importancia de *"contar con espacios en los que podamos reflexionar y contrastar qué hacemos".*

# Familia berriei harrera egiteko taldea

***Parte-hartzeari buruzko hausnarketa taldetik "familietatik familientzako" lehen proposamena***

Familia taldeen hasiera apur bat gogorra izan daiteke. Horregatik, jendea gustura sentitu dadin sartzean saiatzen gara. Oinarri hori kontuan izanda, Isabelek, Haizearen amak zuzentzen duen 'familietatik familientzako' proposamen bat egin du.

Ekimen honen esentzia azaldu du Pedrok, Ivánen aita: *"Haserre etorri ginen, galdera eta zalantza askorekin; momentu gogorra zen guretzat. Gure adin bertsuko bikote bat aurkitu genuen eta esan ziguten ulertzen gintuztela, haiek ere berdina pasa zutela. Orduan mina apur bat arintzen zaizu; lagungarria da".* Yolandak, Gaizkaren ama, harrera egin zien eta, bere hitzetan, ez zen zaila izan: *"Dianak (Familia Esku-hartze arduraduna) ere ulertzen gaitu, baina ematen du gehiago sinesten diozula zure egoeran dagoen jendeari". "Familia gisa sentitzen duguna, profesionalek uler dezakete, baina ezin dute sentitu"*, esan du Anak, Borjaren ama. Isabelek gogoratzen du taldeak *"oso hotzak jende berriarekin. Eta ikusi genuen garrantzitsua zela guk Gorabideri zerbait ematea, ez soilik eskatzea".* Emaitza Mari Carmenek, Jonen ama, konprobatu du: *"Nire harreran, aspalditik ezagutzen genuela zirudien. Konfiantza handia eman zidaten, integratuta sentitu nintzen eta denetariko gaiez hitz egin genuen".*

Maite, Joaren ama, garrantzitsu sentitu zen harreran: *"Pentsatu nuen: 'joer, hemen norbait daukate niretzako bakarrik' eta hizkuntza bera hitz egiten genuela konturatu nintzen".* Iulianak, Sergioren amak, onartzen du errazagoa egin zitzaiola *"taldean sartzea eta eroso sentitzea".* Eta Loreak, Igorren arreba, onartzen du garrantzitsua dela *"hausnartu eta egiten duguna kontrastatzeko espazioak edukitzea".*

# En verano, hemos ofrecido 735 plazas para nuestras personas usuarias y voluntariado

***Nuestro Servicio de Tiempo Libre ha organizado en julio y agosto 20 viajes de dos semanas a trece destinos turísticos, 8 plazas en udalekus forales para menores y 40 actividades de ocio en Bilbao***

Entre el 2 de julio y el 27 de agosto, 575 personas usuarias y 150 personas voluntarias han disfrutado de la oferta de verano que gestiona nuestro Servicio de Tiempo Libre: un programa de vacaciones con 442 plazas para personas usuarias y 131 voluntarias en julio y agosto; 125 plazas de club diario con 20 personas voluntarias en julio; y ocho plazas en udalekus forales con nueve monitoras.

El Programa de Vacaciones ha ofrecido 20 viajes a Sanxenxo, Oviedo, Gijón, Burgos, Lekeitio, Hondarribia, Zarauz, Lardero, Pamplona, Estella, Villanúa y Comarruga. Cada viaje se adapta a los requerimientos e intereses de las personas usuarias y las necesidades de respiro de las familias, y han permitido hacer numerosas actividades: playa, piscina, monte, fiestas, visitas culturales…

Además, nuestro Club de Uribitarte ha acogido hasta 40 actividades como yoga, *boxercicio*, yincana fotográfica, salidas, cine, picnics, talleres o campeonatos de cartas, juegos de mesa y rana. Igualmente, cinco niños y tres niñas de la asociación han disfrutado de manera inclusiva de una semana en los udalekus forales de Zuhatza, Barria, Hondarribia y Zestoa.

Estos programas, que benefician tanto a las personas usuarias como a sus familias, se desarrollan gracias a la importante subvención de la Diputación Foral de Bizkaia y a la inestimable colaboración del voluntariado.




# Udan, 735 leku eskaini ditugu gure erabiltzaile eta boluntarioentzat

***Gure Aisialdi Zerbitzuak bi asteko 20 bidaia, 40 aisialdi jarduera eta foru udalekuetan 8 plaza kudeatu ditu uztaila eta abuztuan***

Uztailaren 2a eta abuztuaren 27a bitartean, 575 erabiltzaile eta 150 boluntariok gozatu dute gure Aisialdi Zerbitzuak kudeatzen duen udako eskaintzaz: erabiltzaileentzako 442 leku eta boluntarioentzako 131 eskaini ditu uztaila eta abuztuan; uztailean 125 leku egon dira eguneko klubean, 20 monitorerekin; eta zortzi leku foru udalekuetarako, bederatzi monitorerekin.

Udako programak 20 bidaia eskaini ditu Sanxenxo, Oviedo, Gijón, Burgos, Lekeitio, Hondarribi, Zarautz, Lardero, Iruñea, Lizarra, Villanúa eta Comarrugara. Bidaia bakoitza erabiltzaileen interes eta familien atseden beharrizanetara egokitzen da eta hainbat jarduera egiteko aukera izan dute: hondartza, igerilekua, mendia, jaiak, kultur bisitak…

Gainera, Uribitarteko Klubak 40 jarduera ere egin ditu, hala nola yoga, boxariketa, argazki-yincana, txangoak, piknikak, tailerrak edota kartatxapelketak, mahai-jokoak eta igela. Era berean, elkarteko bost mutiko eta hiru neskatok foru udalekuetan astebete pasa dute, Zuhatza, Barria, Hondarribi eta Zestoan. Opor inklusiboak izan dituzte.

Programa horiek erabiltzaile zein familientzako onuragarriak dira eta Bizkaiko Foru Aldundiaren diru-laguntza garrantzitsu bati esker garatzen dira; eta noski, boluntarioen ezinbesteko lankidetzari esker.

GORABIDE




# “Antzinako zirgarien moduan, soketatik tiraka jarraitzen dugu”

## *Adimen desgaitasuna duten emakumeen taldeak bere ikerketa lana bukatu du, Itsas Museoan*

‘Emakumea eta Desgaitasuna’ izeneko ikerketa garatu dugu, Deustuko Unibertsitatearekin batera. Horren protagonista izan den taldeak proiektua burutu du eta ondorioen aurkezpena egin du Bilboko Itsasadarra Itsas Museoan: *“Antzinako zirgarien moduan, soketatik tiraka jarraitzen dugu, oztopoak gainditzeko: aurreiritziak, desberdintasuna, tratu txarrak, diskriminazioa, inposizioak, jazarpena, gure sexualitatea ez errespetatzea…”.*

*“Entzun eta baloratu egin behar gaituzte; errespetatu; gure eskubideak errealak izan behar dira; ulertu egin behar gaituzte; desgaitasuna duten emakumeen inguruan gehiago lan egin behar da; babesa jaso behar dugu behar dugunean; diskriminazioaren aurkako neurriak zorrotzagoak izan behar dira. Gizarte osoak, gure familiek eta babesa ematen diguten elkarte eta erakundeek gurekin batera egingo dute indarra, oztopo horiek gainditzeko”.*

# "Como las antiguas sirgueras, seguimos tirando de cuerdas"

## *Nuestro grupo de mujeres con discapacidad intelectual cierra su trabajo de investigación, en el Museo Marítimo*

El grupo que ha protagonizado el estudio 'Mujer y Discapacidad' que desarrollamos con la Universidad de Deusto, ha finalizado el proceso de investigación, con la puesta en común de sus conclusiones en el Museo Marítimo de Bilbao: *“Como las antiguas sirgueras, seguimos tirando de cuerdas, para derribar barreras: prejuicios, desigualdad, malos tratos, discriminación, imposiciones, acoso, no se respeta nuestra sexualidad...”.*

*“Necesitamos ser escuchadas y valoradas, más respeto, que nuestros derechos sean derechos reales, que nos entiendan, que se trabaje más y mejor en asuntos de mujeres con discapacidad, recibir mayor protección cuando la necesitamos, leyes más severas contra la discriminación. Necesitamos que toda la sociedad, que nuestras familias y que las asociaciones e instituciones que nos acompañan, derriben con nosotras esas barreras”.*

## LABURRAK
## BREVES

### Participamos en el desarrollo del Plan de Discapacidad

Dentro de la alianza que mantenemos con la Diputación Foral de Bizkaia, hemos tomado parte de dos de las mesas de trabajo del Plan para la Participación y Calidad de Vida de las Personas con Discapacidad de Bizkaia: las que tienen que ver con el procedimiento de intervención individual y transición entre recursos, y con el sistema de gestión de los servicios.

### Desgaitasun Foru Planaren garapenean parte hartu dugu

Bizkaiko Foru Aldundiarekin daukagun aliantzaren barruan, Desgaitasuna duten Bizkaiko Pertsonen Bizi-kalitate eta Parte-hartze Planaren barneko bi lan-mahaitan parte hartu dugu: banakako esku-hartzearen prozedurarekin eta baliabideen trantsizioarekin zerikusia duena eta zerbitzuen kudeaketarekin zerikusia duena.

### Programa Goratu en el Centro Botín

Nuestro Programa Goratu ha formado parte del curso de verano “Innovación y creatividad de la mano de personas con discapacidad”, de la Universidad de Cantabria y el Centro Botín.

### Goratu Programa Botin Zentroan

Kantabriako Unibertsitateko eta Botín Zentroko "Berrikuntza eta sormena desgitasuna duten pertsonen eskutik" uda ikastaro barruan egon da gure Goratu Programa.

GORABIDE

SEPTIEMBRE DE 2018 | Nº 272 Zk | 2018KO IRAILA

Gorabide es una asociación sin ánimo de lucro orientada a contribuir a que las personas con discapacidad intelectual de Bizkaia y sus familias puedan desarrollar sus aspiraciones vitales, ofreciendo apoyos e innovación en las respuestas, desde una perspectiva ética y promoviendo su inclusión en una sociedad más justa y solidaria. Entidad promotora de Lantegi Batuak (1983) y de Futubide (1991).

Gorabide irabazi-asmorik gabeko elkartea da, Bizkaiko adimen desgaitasuna duten pertsonei eta haien familiei bizitzako asmoak garatzen laguntzen diena, horretarako laguntza eta berrikuntza eskaintzen die ikuspegi etikotik eta haien inklusioa sustatzen du gizarte bidezkoago eta solidarioago batean. Lantegi Batuaken (1983) eta Futubideren (1991) erakunde sustatzailea.

## ARGAZKIA LA FOTO



**Mungia eta Olako Eguneko Zentroetako eta Plazakola eta Atxarte egoitzetako erabiltzaileek Gorabideren zentroen arteko boccia txapelketan parte hartu dute. Gure errehabilitazio taldeak dinamizatzen du.**

**Personas usuarias de los centros de día de Mungia y Ola, y de las residencias de Plazakola y Atxarte han participado en el campeonato de boccia intercentros de Gorabide, dinamizado por nuestro equipo de rehabilitación.**



# agenda iraila septiembre

más en... www.gorabide.com/agenda ...gehiago

## AGRUPACIONES

**Deusto-San Ignacio (Junta):** Martes 4, a las 19:00. Club Solas Etxe. Luzarra nº 24 (Deusto).

**Ermua (Junta):** Lunes 3, a las 19:30. Aldapa nº2 , bajo A (Ermua).

**Mungialdea (Comisión):** Martes 4, a las 20:00. Atxurizubi nº 12 (Mungia).

**Santurtzi (Comisión):** Miércoles 26, a las 19:00. Sabino Arana nº 20-22 (Santurtzi).

## ELKARTEAK

**Deusto-San Ignacio (Batzordea):** Asteartea 4, 19:00etan. Club Solas Etxe. Luzarra, 24 (Deustu).

**Ermua (Batzordea):** Astelehena 3, 19:30etan. Aldapa nº2 , bajo A (Ermua).

**Mungialdea (Komisio):** Asteartea 4, 20:00etan. Atxurizubi, 12 (Mungia).

**Santurtzi (Komisio):** Asteazkena 26, 19:00etan. Sabino Arana, 20-22 (Santurtzi).

## AUTOGESTORES

**Los Nuevos:** Lunes 3, a las 18:00.

**Jóvenes:** Martes 4, a las 18:00.

**Indarra:** Miércoles 5, a las 18:00

**Grupo de Mujeres:** Martes 18, a las 18:00

Todas la reuniones en Licenciado Poza nº 14, 2º (Bilbao)

## AUTOGESTOREAK

**Los Nuevos:** Astelehena 3, 18:00etan.

**Gazteak:** Asteartea 4, 18:00etan.

**Indarra:** Asteazkena 5, 18:00etan.

**Emakumeen Taldea:** Asteartea 18, 18:00etan.

Bilaketa guztiak: Poza Lizentziatua kalea, 14 - 2. (Bilbo)




D.L./L.G. BI-394-2014